

# HERNANIKO gertakariak

LORE UNANUE AZPIAZU

*Hernanin, garai batean bizi izandakoak jaso nahi izan ditugu eta zuei eskaini. Gertakari ia guzti-guztiak izen propioekin lotura estua dute. IMANOL LARRETXEAK kontatu dizkigu eta hauetako batzuk gainera, berak bizi izandakoak dira.*



## ANSELMO ARBIDE... "POTROKILLO"

**ANSELMO ARBIDE** Erreginaren bainuzaina zen eta oso pertsona xelebrea.

Ezkontzeko garai iritsi zitzaion "Potrokillori" eta ohitura zenez, ezkon aurretik emaztegaia etxera eramatea, gurasoek ezagutu zezaten, horixe bera egin zuen Anselmok. (Andregaiak ere gauza bera egingo zuen, noski...)

Iritsi da eguna eta Potrokillok eraman du bere emaztegaia gurasoen etxera. Egun handia izaten zen; bazkari berezia prestatzen zuten eta familia biltzeko aitzakia ere izaten zen. Hala izaten ziren gauzak, familiako sarrera ondo joan zedin. Pentsatzekoa da gainera, lehen egun hura egun fuertea izaten zela... ikaragarritzko lotsa izaten zuen batek.

Etxera iritsi ziren Anselmo Potrokillori eta bere andregaiak eta gurasoek esaten diote neskari:

– Koño, koño!!! Orduan zu izango zara gure erraina?

Neskak, lotsa eginda:

– Hala esaten dute.

Orduan Potrokilloren aitak:

– Nik gauza bakar bat esango dizut.

– Zuk esango duzu!

– Hara... Hemen... gure etxean izango dituzu  
"ZERRI ASKO ETA URDAI GUTXI"!

(Esan beharra dago Anselmo Potrokilloren aitak hori esan bazion ere gero ezkondu egin zirela...) ♦

# JUAN JOSE SAGARNA "KIXKILLU"

## HERNANIKO PREGONEROA

zen "Kixkillu" eta pregoneroa bazen ere apenas zekien erdaraz. Hala ere erdaraz egin behar zuenean, batere lotsarik gabe egiten zuen....

Bere danborra hartuta, hor ibiltzen zen Hernaniko txoko ezberdinetan (Adarraganean, Akarregin,...) bandoa jotzen. Kontatzen zituenak..., era guztietako berriak sagardoaren garaia zenean, zein sagardotegi zeuden zabalik eta zenbatean zegoen basoa. Fruta, barazki... kamioiren bat



etortzen zenean ere, Kixkilluk danborra joaz abisatzen zion herriari.

Hor dator egun batean Kixkillu eta bandoa jotzen du: Tarran-tan-tan.- (erdaraz). Ha llegado un camión con patata de Alava ... El Kilo a 25 centimos y "el que quiera TOMAR POR SACO, que se vaya a la Alhóndiga".

Beste batean berriz, hor dator Kixkillu bere danborrarekin, redoble bat eta:

- Ha llegado un camión de Valentzia con NARANCAS y otras cosas más pequeñas ... (¡mecaguen sos! .... nola dute izena hauek) ...y otras cosas que se llaman NANDARINAS. ♦

# ESTROPADAK

**IRAILA ZEN** eta ohi den bezala estropadak Donostian.

Hernaniko jendea beti izan da oso estropada zalea eta irailean estropadak zeuden igandeetan trena edo tranbia hartu eta bertara joaten ziren.

Iritsi da igandea eta jende gehiena apeaderora jaitsi zen trena hartzera. Jendez gainezka zegoen Hernaniko apeaderoa, guzti-guztiak txartela eskutan zutela trena noiz iritsiko zain. Trena iritsi baino bost minutu lehenago, hor ateratzen da apeaderoko arduraduna eta esaten die:

- Orain datorren trena, ez da geldituko, jendez beteta datorrelako... hori da oraintxe bertan pasa didaten abixua.

Jende asko hasarretu zen eta buila batean hasi.

- Baina nola ez dela geldituko trena! Estropadak orduan zer?

Renfeko buruak:

- Dirua itzuliko zaizue lasai egon ... baina, trena ez da geldituko.

Jendea gero eta haserreago zegoen eta ez zuen noski, txartela itzultzeko asmorik. Jendetza handia zen, eta han zeuden batzuk esan zuten:

- Egin behar diagu!
- Trenbide erdi-erdian jarriko gaituk!



- Hori egingo diagu bai, era horretara, trena behartuta dago gelditzea...

- Bale!

Jarri ziren dozena bat lagun trenbide erdian eta hor datorrela trena.

PI, PI, PI .....tutua jo eta jo ... eta haiek "kieto" trenbide erdian ... Eta trenak gelditu egin behar izan zuen ... ez zuen beste

erremediorik izan. Trena gelditu bai eta apeaderoan zegoen jendea barrura, noski...

Abiatzen da trena, Donostiara, jendez bete-beteta, jendea zintzilik zeramala. Hernaniko estazioan noski, ez zen gelditu eta zuzenean Donostiara abiatu zen.

Heltzen dira

Donostiako estazioara eta han zeuzkaten zain poliziak... garai hartan *Policía de Asalto* zeritzana.

Trena gelditu eta poliziek:

- Enseñen los billetes!

Eta Hernani-SS zuten guzti-guztiak aparte jarri zituzten.

Azkenean Donostiara iritsi, iritsi ziren, baina ez ziren estaziotik atera eta, ez zuten estropadarik ikusi. Baina ez bakarrik hori..., Hernani-SS zuen bidaiari bakoitzari, 5 duroko isuna jarri zioten. ♦

(*Joxe Antonio Goñi Arbide "Maldaburu", Imanol Larretxearen aitona bizi izan zuen gertakaria da hau. Tartearen baita ere, Maria Villar. Urtea berriz, 1926-1928).*)